



Hanna WALLACE | MUGARIK GABEKO MEDIKUAK

IKUSMIRA

«SEA WATCH 4», ELKARTASUNAREN SINBOLOA

Mugarik Gabeko Medikak (MSF) eta Sea Watch gobernu kanpoko erakundeak elkarrekin itsasoratuko dira, Mediterraneoan olatuen artean pertsonak etengabe hiltzen jarraitzea eragozteko xede. Uneotan ez dago erreskate ontzirik bertan eta, koronabirusaren aitzakiapean, Europak «erreskate lanak erabat mugatu» dituela salatu dute bi erakundeek. «Ezin dugu onartu indarreko politika arrazisten eta axolagabeen ondorioz etengabe pertsonak hiltzea. Gure esku dagoen guztia egingo dugu hori ekiditeko», ohartarazi du Oliver Behn MSFko Operazio bu-ruak. Datorren egunetan, «Sea Watch 4» ontzia itsasoratuko da. Otsailean, Alemaniako Eliza Protestanteak, beste batzuen artean, bultzatutako United4Rescue koalizioak eta Sea Watchek ikerketa ozeanografikoak egiteko erabiltzen zen «Poseidon» ontzia erosi eta erreskate lanak egiteko egokitu zuten. «Sea Watch 4» izena eman diote. «Elkartasunaren sinboloa da. Gizarte zibilak Europari bidaltzen dion mezua ere bada: hamaika oztopo jar-tzen badizkigute ere, ez ditugu erreskateak albo batera utziko», berretsi du Behnek. Lotsagarritzat jo du etorki-nak atxilotu eta torturatuak izan ohi diren Libiara bidaltzea berriro. Aina Lertxundi